

Oso desberdinak gara

- Egun on, bikote. Zer moduz ari zarete pasatzen Bikien Egunean?
- Oso ondo. Urtero etortzen gara, eta primeran pasatzen dugu lagunekin.
- Nor zarete zuek?
- Ni Maddi naiz eta hau Irati da. 18 urte dauzkagu.
- Itxuraz berdin-berdinak zarete, izaeraz ere bai?
- Ez, oso desberdinak gara txikitatik. Ikastolan, ni oso bihurria nintzen; Irati, ordea, klaseko zintzoena zen.
- Futboleant alderantziz izaten zen. Maddik oso gaizki jokatzen zuen; nik, berriz, gol asko sartzen nituen.
- Eta gustu kontuetan?
- Horretan ere desberdinak gara. Iratiri irakurtzea gustatzen zaio, eta bideojokoetan aritzea eta telesailak ikustea; niri, ordea, ez zait etxean egotea asko gustatzen, nahiago dut mendira joan, kirola egin eta noizean behin kontzerturen bat ikusi.
- Eta jateko orduan, gustu berdinarik daukazue?
- Janari kontuetan ere oso ezberdinak gara. Niri kanpoko janaria probatzea gustatzen zait: japoniarra, mexikarra... denetarik; Maddiri, ordea, betiko janaria gustatzen zaio; ez du ezer berririk probatzen.
- Nahiz eta oso desberdinak izan, ondo moldatzen zaretela ematen du.
- Bai, normalean ondo moldatzen gara, baina geuk ere badauzkagu geure haserreak, denok bezala.
- Eskerrik asko, eta ondo segi.
- Mila esker. Agur.